

320/2017 Foru Agindua, ekainaren 28koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duena.

(2017ko ekainaren 30eko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Urriaren 2ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, beste urrats bat gehiago egin zuen aurrera administrazio publiko elektronikoaren ezartzeko prozesuan. Berritasun gisa, legeak bereizten ditu identifikazioa eta sinadura elektronikoak, ezartzen du azken hori eskatuko dela interesdunaren borondatea eta adostasuna egiaztatu behar denean, xedatzen du zer subjektu dauden beharturik administrazio publikoekin harremanak modu elektronikoan izatera, eta lehenetsua ematen die jakinarazpen elektronikoei.

Azken xedapenetatik bosgarrenean, 39/2015 Legeak ezartzen du legea indarrean jarri eta urtebeteko epean, egokitu egin beharko direla legean aurreikusitakoarekin bateraezinez diren Estatuko, erkidegoetako eta tokiko prozeduren erregulazio-arauak.

Tributuen esparruan, zergen foru arau orokorrak 94.4 artikuluan dio erregelamenduz finkatuko dela zein kasu eta baldintzatan aurkeztu behar dituzten zergapekoek bide telematikoz beren aitortpenak, autolikidazioak, eskaerak edo zerga ondorioak dituzten bestelako dokumentuak; orobat, 105.2 artikuluan arauak dio erregelamenduz beharrezko baldintzak ezarriko direla jakinarazpenak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz egin daitezela, jakinarazpen horien araudiak ezarritakoarekin bat.

Horri dagokionez, tributuen arloko erregelamenduzko garapena bitarteko elektronikoaren erabilera Foru Administrazioaren eremuan arautzeko, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren bidez egin zen izaera orokorrean. Horrez gain, Ogasun eta Finantza Departamentuak onartutako azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduaren bidez arautu zen zerga arloko zenbait bide elektronikoz egiteko obligazioa, eta, azkenik, urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak ezarri zuen zergapeko edo ordezkari jakin batzuek nahitaez bitarteko elektronikoak erabili beharko zituztela haien gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik edo dedikazio profesionalagatik bitarteko horietara irizpidea bazutela egiaztatuz gero.

Indarrean 2017/06/30etik aurrera (1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak, aldiz, 2017/10/02an jarriko dira indarrean).

Zerga betebeharrak jakin batzuk betetzeko garaian bitarteko telematikoen erabilera bultzatzen jarraitu nahirik, foru agindu honek ordeztu egiten du aipatu dugun urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Agindua; orobat, ezartzen du ezen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluko baldintzak betetzen dituzten zergapekoek eta beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik edo dedikazio profesionalagatik bitarteko horietara iristeko moduan dauden beste kolektibo batzuek nahitaez bitarteko elektronikoak erabili behar dituztela Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza elektronikoan herritarren esku jartzen diren zerga alorreko tramite eta zerbitzu guztietan.

Horrez gain, agindu honek zehazten du zer identifikazio sistema eta zer sinadura elektroniko erabili daitezkeen zerga arloko harreman telematikoetan, eta bertan behar uzten ditu urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak jakinarazpen elektronikoari egindako salbuespenak.

Amaitzeko, foru aginduak ezartzen du aurkezpen telematikorako bitartekoak izango direla Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan une bakoitzean eskura jartzen diren formulario eta aplikazioak eta Zergabidea sisteman dauden ereduak. Horren ondorioz, zerga aitortzen diren ereduak foru aginduetan aurkezpenerako bitartekoei egindako erreferentziak alde batera utzi eta foru agindu honetan ezarritakoa aplikatuko da haien ordeztu, eta erreferentzia horiek ez dira beharrezkoak izango agindu hau indarrean jarri ondoren onartzen diren ereduak dagokienez.

Hortaz, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoaren erabilera arautzen duenak, 33. artikuluan ezarritakoa betetz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Zerga administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartutako pertsonak eta entitateak.

1. Jarraian adierazten diren zergapekoak daude behartuta zerga arloko tramite eta komunikazioetan bitarteko elektronikoak erabiltzera:

a) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 14. artikuluko 2. apartatuan aipatzen dituen subjektuak.

b) Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenean, eta, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 24.2 eta 38. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan daudenean.

Indarrean 2017/06/30etik aurrera (1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak, aldiz, 2017/10/02an jarriko dira indarrean).

c) Azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 9. artikuluan eta haren hurrengoetan xedatutakoari jarraituz ordezkari profesional diren pertsonak edo entitateak –aurreko a) letran egon edo ez–, beren izenean zein haien ordezkatuenean jarduten dutenean, baita ordezkatu horiek aurreko apartatueta sartuta ez daudenean ere.

Letra honen barruan sartzen dira zerga kudeaketako zereginak betetzen dituzten entitate publiko zein pribatuak, baldin eta, horretarako, lankidetzaz hitzarmen bat izenpetu badute Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 89. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2. Aurreko apartatuko a), b) eta c) letretan adierazitako pertsonak eta entitateek nahitaez bide elektronikoak erabiliz egin behar dituzte tramite guztiak. Tramite horiek egitean, ezingo da erabili beste ezein aurkezpen edo betetze modurik, non eta tramitazio elektronikoak behar dituen bitartekoak ez diren eskura jarri edo arazo teknikoek ez duten galarazten eskuragarri dauden aplikazioak edo laguntza programak erabiltzea. Azken kasu horretan, fitxategiaren tamainagatik laguntza programaren bidez transmititu ezin daitezkeen aitorten informatikoak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkeztu ahal izango dira.

Orobat, pertsona eta entitate horiek bide elektronikoz jaso behar dituzte zerga Administrazioak bere eskumenen barruan egiten dizkien komunikazio eta jakinarazpen administratiboak. Aurreko apartatuko c) letran aurreikusitako kasuetan, betebeharrak horrek eragiten die bai zergapeko gisa jasotzen dituzten jakinarazpenei bai ordezkari gisa jaso beharrekoiei.

3. Aurreko 1. apartatuan sartu ez diren zergapekoek hautazkoa izango dute bitarteko elektronikoak erabiltzea egoitza elektronikoan dauden zerga alorreko tramite eta komunikazioak egiteko eta zerga Administrazioak bere eskumenen barruan egiten dizkien komunikazio eta jakinarazpen administratiboak jasotzeko.

Dena den, berariazko araudiak ezartzen badu bitarteko elektronikoa izango dela tramite edo komunikazio jakin bat egiteko modu bakarra, 1. apartatuan sartu ez diren zergapekoek ere bitarteko elektronikoz egin beharko dituzte tramite eta komunikazio horiek.

4. Aurreko 1. apartatuko a) eta b) letretan eta 3. apartatuan aipatzen diren zergapekoen identitatea frogatzeko, bide hauetako bat erabili ahal izango da:

a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritzen diren sistemak.

b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatueta oinarritzen diren sistemak.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak bere araudian xedatutakoari jarraituz eskura jartzen duen pasahitz operatiboa, edo, bestela, tramite jakin batzuetarako berariaz ezartzen den beste identifikazio sistema propio bat.¹

5. Beren borondatearen eta adostasunaren adierazpena autentikoa dela eta dokumentua osoa eta aldaezina dela frogatzeko garaian, zergapekoek bitarteko hauetako edozein erabili dezakete sinatzeko:

a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatueta oinarritzen diren sinadura elektronikoa aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak eskura jartzen duen pasahitz operatiboa edo, bestela, tramite jakin batzuetarako berariaz ezartzen den beste sinadura sistema propio bat.

6. Aurreko 1. apartatuko c) letran aipatzen diren pertsonak edo entitateek sinadura elektronikoko edo zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatueta oinarritutako sistemak erabili behar dituzte identifikazio sistema gisa, eta sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatueta oinarritutakoak sinadura sistema gisa.

2. artikulua. Zerga arloko tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko baldintza orokorrak.

1. Zerga arloko tramiteak bide elektronikoz egiteko, kasuan kasuko betebeharrak ezartzen dituen edo eskaera-aukerak aurreikusten dituen araudiak dioenari jarraituko zaio. Zehazki, aurkezteko epea araudi horretan ezarritakoa izango da.

2. Hauek egin dezakete aurkezpena bide elektronikoz:

a) Zergapekoek edo legezko ordezkariak, halakorik bada.

b) Zergapekoen borondatezko ordezkariak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean emandako ordezkarietan zehaztuta dauden tramiteetarako.

c) martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 89. artikuluan jasotakoari jarraituta, bidezko hitzarmenaren bidez tributuen aplikazioan gizarte laguntzaile diren pertsonak edo entitateak, betiere unean uneko araudiak horretarako ezartzen dituen baldintzak eta beharkizunak betetzen badituzte.

¹ Igo artikulua 4. paragrafoak 2017/09/11ko GAOn argitaratutako akats zuzenketa jasotzen du.

3. Aurkezpenak baldintza orokor hauek bete behar ditu:

a) Zergapekoak Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) eduki behar du, eta aurkezpena egin aurretik, zergapekoen erroldan egon behar du identifikatuta, hain zuzen ere zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 4. artikuluan aipatutakoan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa elkarrekin aurkezten duten ezkontideen kasuan, beharrezkoa da aurreko zirkunstantziak biek betetzea.

b) Zergapekoak nahitaezkoa izango du dagokion identifikazio sistema edo sinadura elektronikoa edukitzea, foru agindu honen 1. artikuluko 4tik 6ra arteko apartatueta jasotakoa kontuan hartuta.

Aurkezpen elektronikoa ordezkariak edo behar bezala baimendutako gizarte laguntzaileek egiten badute ezarrita dauden sistemetako bat erabilita, beraiek eduki beharko dute bidezko identifikazio sistema edo sinadura elektronikoa.

3. artikulua. Zerga arloko tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko prozedura.

1. Egoitza elektronikoa eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean ikusi eta eskuratu ahal izango dira tramitazioa bide elektronikoz egiteko zerbitzuak, behar diren formulario edo eredu normalizatuak eta laguntza programak.

2. Hiru modutan prestatu eta aurkeztu daitezke zerga aitortpenak, eskaerak eta tramiteak: dagokion formularioan edo laguntza programan eskatzen diren datuak betez, «Zergabidea» sistema erabiliz, edo, bestela, beste programa informatiko batek sortutako fitxategia aurkeztuz. Azken kasu horretan, ezinbestekoa da fitxategi horren edukia eta ezaugarriak bat etortzea kasuan kasuko tramitea erregulatzen duen araudiak ezartzen dituen berezitasunekin.

Araudiak beste sistema propio batzuk erabiltzeko aukera aitortzen badu, izan identifikaziokoak izan elektronikoki sinatzekoak, eta zergapekoak sistema horiek aukeratzen baditu, aurkezpen elektronikoa, nahitaez, horretarako eratutako laguntza programaren bidez egin beharko da.

Indarrean 2017/06/30etik aurrera (1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak, aldiz, 2017/10/02an jarriko dira indarrean).

3. Egoitza elektronikoko tramite eta zerbitzuen katalogoan ikusgai egongo da eguneratuta zer tramite egin daitezkeen elektronikoki Ogasun eta Finantza Departamentuaren berriazko zerbitzu, programa edo formularioekin.

4. Eskerak, idatziak edo komunikazioak elektronikoki aurkezteko ez badago eskura berriazko formulario edo laguntza programarik aurreko apartatuetan aurreikusitako moduan, edo formulario edo laguntza programa hori ez badago integratuta «Zergabidea» sisteman, egoitza elektronikoa kokatuta dagoen erregistro elektronikoko formulario generikoa erabiliko da, baldin eta bidali beharreko dokumentazioak onartuta dauden formatuak betetzen baditu edo tamainari zein beste edozein ezaugarri buruz ezarritako mugekin bat badator.

5. Transmisio elektronikoa akats formalak atzematen badira, sistemak berak haien berri emango dio aurkezleari, errore mezuak helaraziz, behar den erantzun zuzendu ditzan.

6. Tramitea onartzen bada, sistemak aurkezpenaren frogagiria erakutsiko du pantailan, eta hura eskuratzeko aukera ere emango du.

4. artikulua. Ordainketak eta itzulketak bitarteko elektronikoz aurkezten diren autolikidazioetan.

1. Zerga arloko tramitea ordaintzekoak diren autolikidazioak aurkeztea denean, eta ordainketa bankutik helbideratuta dagoenean, helbideratze agindua adierazi behar da, eta ordainketa helbideratzeko aukeratutako kontuaren IBAN kodea idatzi (Banku Kontuaren Nazioarteko Kodea).

Helbideratze aginduak elektronikoki aurkezten diren autolikidazioaren ondorioz ordaindu beharreko zenbateko osoa jaso behar du beti, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eredia onartzen duen foru aginduan aurreikusten diren berezitasunak eragotzi gabe.

Ordaintzeko emaitza duten autolikidazioak elektronikoki aurkeztean transmititu dituzten helbideratze aginduak aldatu ditzakete zergapekoek.

Indarrean 2017/06/30etik aurrera (1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak, aldiz, 2017/10/02an jarriko dira indarrean).

Ogasun eta Finantza Departamentuak zergapekoen helbideratze aginduak helaraziko dizkie entitate laguntzaileei, eta horiek, ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo hiru egun baliodunen barruan –edo geroko epe batean, autolikidazio eredia onartzen duen foru aginduak bestelako epe bat ezartzen badu–, kontuan kargatuko dute helbideratutako zenbatekoa eta dagokion kontu murriztuan sartuko dute. Ondorio horietarako, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunetik kargua gauzatu arte zergadunak behar besteko saldoa eduki behar helbideratze kontuan.

Behin helbideratutako zenbatekoa zordunduta, entitate laguntzaileak ordainketa egin izanaren frogagiria igorriko dio zergapekoari.

2. Autolikidazioa transmititu ondoren, bi modutan egin ahal izango da ordainketa: bide elektronikoz, ordainketa-pasabidea erabilita, abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko sarrerak ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duenak, xedatutakoari jarraituz, edo, bestela, entitate laguntzaileetan ordainduz, aldeztu aurretik inprimatu behar den ordainketa-gutuna bertan aurkeztuta. Ordainketa-gutuna inprimatzeko, egoitza elektronikoa dagoen zerbitzuan sartu behar da, eta aurkeztutako eta ordaindu gabe dauden autolikidazioak ordaintzeko modalitatea aukeratu.

3. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, foru agindu bidez baimendu daitezke bide elektronikoz ordaintzeko garaian banku transferentzia erabiltzea baldintza jakin batzuk bete edo haren erabilera justifikatzen duten zirkunstantziak gertatzen direnean, urriaren 1eko 500/2015 Foru Aginduak ezarritakoren arabera.

4. Autolikidazioen emaitza ordaintzeko denean eta zergapekoaren asmoa zorra geroratu edo zatikatzea denean, autolikidazioa bide elektronikoz aurkeztearekin batera, zergapekoak «Gipuzkoatarira» jo behar du, «Zerga zoren ordainketa» atalean sartu, eta bertan gerorapena edo zatikapena eskatu.

5. Autolikidazioek itzultzeko emaitza dutenean, itzulketa banku transferentziaz egiteko, Banku Kontuaren Nazioarteko Kodea (IBAN kodea) adieraziko da autolikidazioan.

Indarrean 2017/06/30etik aurrera (1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak, aldiz, 2017/10/02an jarriko dira indarrean).

5. artikulua. Nahitaezko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.

1. Aurreko 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren pertsonak eta entitateek bide elektronikoz jaso behar dituzte Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga alorrean egiten dituen komunikazio eta jakinarazpenak.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, jarraian zehazten diren kasuetan Ogasun eta Finantza Departamentuak bitarteko ez-elektronikoak erabili ahal izango ditu jakinarazpenak egiteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 105etik 108ra arteko artikuluetan aipatzen diren leku eta moduetan:

a) Jakinarazpena edo komunikazioa egiten denean zergapekoa edo haren ordezkaria bere kabuz agertzen delako Ogasun eta Finantza Departamentuaren bulegoetan, eta une horretan jakinarazpen edo komunikazio pertsonala eskatzen duelako.

b) Jarduketa administratiboa berehala edo lehenbailehen jakinarazi behar denean haren eraginkortasuna ziurtatzeko, eta komunikazio edo jakinarazpen elektronikoa horrekin bateragarria ez denean.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuak bitarteko elektronikoak eta ez-elektronikoak erabiltzen baditu komunikazioa edo jakinarazpena egiteko, ulertuko da haren ondorio guztiak ongi egindako lehen komunikazio edo jakinarazpenetik aurrera gauzatu direla.

4. Komunikazio eta jakinarazpenak ez dira inoiz ere modu elektronikoa egingo jakinarazi behar den egintzak formatu elektronikora bihurtu ezin diren elementuak dituenen.

5. Zergapekoak betetzeari uzten badio jakinarazpen elektronikoko sisteman sartzera behartzen zuten zirkunstantziak, beste modalitate bat lehenetsi ahal izango du 030 edo 036 zentsu aitopenen bitartez.

Edozein kasutan ere, baja eskaera aurkeztu aurretik bidean dauden jakinarazpen elektronikoa baliozkoak izango dira beti.

6. artikulua. Jakinarazpen elektronikoa egitea.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak egiten dituen jakinarazpen elektronikoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik sartzeko, beharrezkoa izango da nork bere burua identifikatzea sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak erabiliz edo Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen pasahitz operatiboaren bitartez.

2. Foru agindu honen 2. artikuluko 2. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen dituen pertsonak eta entitateak sartu daitezke jakinarazpen elektronikoa.

3. Egintza bat elektronikoki jakinarazten denean, interesdunari jakinarazpenaren frogagiria emango zaio, bertan identifikatuta zer egintza jakinarazi den, zein den hartzailea, jakinarazpena zer egunetan jarri zaion eskura, noiz sartu den edukian, edo zein egunetan - jotzen den jakinarazpena errefusatutzat legez ezarrita dagoen epea igaro delako.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Bitarteko elektronikoz aurkeztutako autolikidazioak geroratzeko eskaerak.

Autolikidazioak eta bestelako zerga aitortpenak bitarteko elektronikoz aurkeztera behartuta ez egonik ere, bitarteko horiek erabiltzen dituzten zergapekoek, baliabide horiek erabilia aurkeztu beharko dituzte haietatik ondorioztatutako zorra geroratzeko eskaerak.

Bigarrena. Zerga arloko tramiteak egitea bitarteko elektronikoa ez diren formulak erabilia.

Indarrean 2017/06/30etik aurrera (1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak, aldiz, 2017/10/02an jarriko dira indarrean).

Kasu berezietan, Ogasuneko zuzendari nagusiak baimendu dezake foru agindu honetako 1. artikulua 1. apartatua aipatzen diren zergapekoetako batzuek bestelako formulak erabiltzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jarritako bitarteko elektronikoetatik aparte, eta, horrelakoetan, horri begirako jarraibideak emango ditu.

Hirugarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duen urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduari egindako aipamenak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duen urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduari Gipuzkoako zerga araudian egiten zaizkion erreferentzia guztiak foru agindu honetako prezeptuei egindakotzat joko dira.

Laugarrena. Aurkezpena bitarteko elektronikoz egiteko modalitateei egindako aipamenak.

Zerga aitortenak arautzen dituzten foru aginduetan aurkezpen elektronikoari egiten zaizkion erreferentziak foru agindu honi egindakotzat joko dira, baita Zerga Administrazioak, aitortenak prestatu eta aurkezteko, zergapekoen esku jartzen dituen zerbitzu, formulario, aplikazio edo laguntza programei ere.

Kasuan kasuko zerga ereduak arautzen duen foru aginduak aurkezpen elektronikoa Editran bidez egiteko aukera jasotzen badu, zergapekoek abenduaren 5eko 1210/2002 Foru Aginduak ezarritako baldintzen eta prozeduren arabera erabili ahal izango dute sistema hori.

Bosgarrena. Borondatezko jakinarazpen elektronikoen sisteman baja ematea sistema ez erabiltzeagatik.

Jakinarazpen elektronikoa beren borondatez aukeratu duten zergapekoak sistema horretan atzera egindakotzat joko dira hura aukeratu eta 3 urte igarotzeagatik, bide horretatik jasotako jakinarazpenetan sartu ez direnean edo, jakinarazpen elektronikoaren borondatezko eskaera berrikusteko prozedura bat behin jakinarazita, egindako aukera berariaz berresten ez denean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindua indarrean jartzen denean, indarririk gabe geratuko da urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duena.

Guztiarekin ere, 1.1 artikuluko a) letrak eta 5. artikuluko 1. apartatuak indarra izango dute 2017ko urriaren 2ra arte.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Guztiarekin ere, 1.1 artikuluko a) letra eta 5. artikuluko 1. apartatua 2017ko urriaren 2an jarriko dira indarrean.